



Euskara
2026EDIN0001

Elgoibarko UDALAREN eta ELGOIBARKO IZARRA Euskaltzaleon Topagunea elkartearen arteko HITZARMENA

EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO EKINTZAK ETA HAURRENTZAKO AISIA HEZITZAILEKO EGITASMOA LANKIDETZAN ANTOLATU ETA FINANTZATZEKO

Alde batetik, Maialen Gurrutxaga Uranga andrea, Elgoibarko UDALEKO alkatea, beronen izenean eta ordezkari gisa, eta horretarako behar bezala ahalmenak dituena.

Eta bestetik, Amaia Amizabalaga Osoro andrea, 15.376.239A NAN zenbakiduna, adinez nagusia, ELGOIBARKO IZARRA Euskaltzaleon Topagunea elkartearen izenean eta ordezkari gisa, eta horren ordezkari gisa, diharduena.

Bi alderdiek, hitzarmena egiteko eskumena eta gaitasuna aitortzen dizkiote elkarri, eta honako hau

AZALTZEN DUTE:

ELGOIBARKO UDALAK, alde batetik, udalerrian haurren sustapenerako aisia hezitzaileko eskaintza osatu nahirik, Atxutxiamaika Sailak aurkeztzen duen haurrei eta familiei zuzendutako aisia hezitzaileko egitasmoa lagundu nahi duela, eta bestetik, euskaraz bizitzeko dauden aukerak areagotu nahirik, hainbat esparrutan euskararen transmisioa, erabilera eta elikadura bultzatuko dituzten ekintzak antolatzeke laguntza eman nahi duela.

Halaber, ELGOIBARKO IZARRA Euskaltzaleon Topagunea elkarteak, euskararen eta euskal kulturaren alde lanean diharduen elkarteak izateaz gain, haurren eta hauen familien alorrean lanean diharduen elkarteak ere badela, eta horretarako hainbat proiektu prestatu eta abian jartzen dituela urtean zehar.

ELGOIBARKO UDALAREN asmoa dela ELGOIBARKO IZARRA Euskaltzaleon Topagunea elkarteak, inolako irabazteko asmorik gabe, egiten duen lan eskergari behar bezalako tratamendua ematen jarraitzea, eta, bide batez, Elkartearen geroa ziurtatu eta sendotzea.

Hortaz, ELGOIBARKO IZARRA Euskaltzaleon Topagunea elkarteak euskararen eta euskal kulturaren alde eta haurren familien sustapenerako, egiten duen lanari laguntzeko, honako hitzarmen hau sinatzen dute jarraian zehaztuko diren baldintzen arabera:

BALDINTZAK

Lehenengoa: Hitzarmen honen xedea da ELGOIBARKO IZARRA Euskaltzaleon Topagunea elkarteak eta ELGOIBARKO UDALAK, elkarlanean eta elkartearen ardurapean, 2026. urtean egingo dituen egitasmoetarako dirulaguntzak arautzea.

Bigarrena: Hitzarmen honen bitartez, dirulaguntza emango dio ELGOIBARKO UDALAK (aurrerantzean, UDALA) ELGOIBARKO IZARRA Euskaltzaleon Topaguneari (aurrerantzean; ELKARTEA) ondoren zehaztuko diren egitasmoak eta ekintzak gauzatu ahal izateko. ELKARTEAK berriz, hitza ematen du bere egitasmoa hitzarmen honetan jasotakoaren arabera bideratuko duela.

Hirugarrena: Hona hemen UDALAK diruz lagunduko dituen egitasmoak eta ekintzak:

Euskara Sailaren dirulaguntza 2026	
ERABILERA ETA ELKARREREGINA: - BARRENA astekaria - BARRENA.EUS ataria	67.500,00 €
EZAGUTZA ETA GAITASUNA: - Berbazulo egitasmoa - <i>Tertuliak</i> egitasmoa	23.000,00 €
JARRERAK ETA MOTIBAZIOAK: - Familia-transmisioa - Euskalduntasuna nerabe-gazteekin - Arlo sozioekonomikoan eragiteko ekintzak - Batera Elgoibarren - Euskaraldia - Eguberrietako bertso-jaialdia	39.500,00 €
GUZTIRA	130.000,00 €

Gazteria eta Hezkuntza Sailaren dirulaguntza 2026	
OPORRALDIK - Udaberria - Uda - Negua	40.000,00 €
SARETZEN	18.700,00 €
KALEKO EKINTZAK	14.800,00 €
FORMAZIOA	500,00 €
GUZTIRA	74.000,00 €

Hori kontuan izanik, Elgoibarko Udaleko Euskara Sailak eta Gazteria eta Hezkuntza Sailak egokitzen jotzen dute Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea elkarteari izendun dirulaguntza ematea. Horregatik, dirulaguntza gisa, Elgoibarko Udalaren 2026eko aurrekontuko I 0208.481.335.00.02 2026 (197) partidatik 130.000,00 €, eta I 0209.481.337.20.02 2026 (213) partidatik 74.000,00 € ematea proposatzen da, hitzarmen bateratu honen bidez.

Laugarrena: Euskara Sailaren dirulaguntza, 130.000 eurokoa, UDALAK 2026. urterako indarrean duen aurrekontuko I 0208.481.335.00.02 2026 zenbakidun partidaren kontura emango da, eta Gazteria eta Hezkuntza Sailaren dirulaguntza, 74.000 eurokoa, I 0209.481.337.20.02 2026 zenbakidun partidaren kontura.

Bosgarrena: UDALAREN EUSKARA SAILAK, 2026. urtean, 130.000,00 euroko dirulaguntza, hau da, aurkeztutako aurrekontuaren (248.673,04€) % 52,27ko dirulaguntza emango dio ELKARTEARI, euskararen jabekuntza, sentsibilizazioa, erabilera eta elikadura bultzatzeko egitasmoa burutzen laguntzeko. Aurrekontuaren gainerako % 47,73a onuradunak finantzatu beharko du; bai baliabide propioen, bai beste zenbait dirulaguntzaren bidez. UDALAREN GAZTERIA ETA HEZKUNTZA SAILAK, 74.000,00 euroko dirulaguntza, hau da, aurkeztutako aurrekontuaren (132.283,79 €) %



Euskara
2026EDIN0001

55,94ko dirulaguntza emango dio ELKARTEARI, haurrei eta familiei zuzendutako aisia hezitzaileko egitasmoa bideratzen laguntzeko. Egitasmoaren gainerako % 44,06a onuradunak finantzatu beharko du; bai baliabide propioen, bai beste zenbait dirulaguntzaren bidez.

Seigarrena: Dirulaguntza hauek jaso ahal izateko, ELKARTEAK 2026. urterako, euskararen erabilera normalizatzeko prestatu duen egitasmoa eta haurrei eta familiei zuzendutako aisia hezitzaileko egitasmoa aurkeztu beharko dizkio telematikoki UDALARI. Era berean, ELKARTEAK egitasmo horietan jasotako ekintzei dagozkien aurrekontu xehekatuak aurkeztu beharko ditu.

Zazpigarrena: UDALAK bi alditan ordainduko dizkio dirulaguntzak ELKARTEARI, Udaleko Kontu-hartzailetzak dagozkion txostenak egin ostean.

Lehendabiziko zatia (%80) hitzarmen hau sinatu eta hilabeteko epean ordainduko da; bigarren zatia (%20), berriz, dirulaguntza justifikatzeko beharrezkoak diren agiriak aurkeztu eta hilabeteko epean.

Hori dela-eta, Elgoibarko Udalaren eta bere ardurapeko Autonomiadun Erakundearen dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 36.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, egiten den diru aurrerapena 30.000 eurotik gorakoa denez, elkarteak, aurreratuko zaion zenbatekoaren % 7aren pareko bermea jarri beharko du. Horretarako, indarrean dagoen legedian araututako gordailuak, abalak, kauzio-aseguruak, berme pertsonal eta solidarioak nahiz bermeen eskubide errealak aurkeztu ahal izango ditu ELKARTEAK. 2010eko hitzarmenak zirela eta, ELKARTEAK jami zituen bermeak (8.820 € euskara arloko dirulaguntzagatik, eta 5.040,75 € gazteria eta hezkuntza arloko dirulaguntzagatik) aurten jami beharrezkoak baino handiagoak direnez, eta bermeek eperik ez dutenez, ELKARTEAK ez du berme berririk egin beharko.

Dirulaguntzaren bigarren zatia jaso ahal izateko, ELKARTEAK eskumena duen Udaleko organoaren aurrean egiaztatu egin beharko du diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak egin dituela, eta emandako zenbateko osoa erabili duela jarduerak edo proiektuak egiteko. Horretarako, ondoren aipatuko diren agiriak aurkeztu beharko ditu era elektronikoan, gehienez ere, dirulaguntza eman eta **hurrengo urteko urtarilaren 15erako**, egun hori bane. Egun hori larunbata edo jaieguna bada, zuriaketa aurkezteko epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

Hona hemen telematikoki aurkeztu beharreko agiriak:

- Jardueraren edo programaren garapena azaltzeko memoria, genero ikuspegia txertaturik. Horretarako, datuak sexuaren arabera bereizita azaldu beharko dira.
- Diru-sarreraren eta gastuen behin betiko zerrenda, eta hasieran aurkeztutako aurrekontuaren eta behin betikoaren arteko aldearen arrazoiak. Hala badagokio, faktura zenbakia, azalpena, zenbatekoa eta ordainketa data ere aurkeztu beharko dira.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru-sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- Dirulaguntzagai diren egitasmoek eragindako gastua egiaztatuko duten fakturak, jatorrizkoak eta kopiak, eta ordaindu izanaren egiaztapenak.
- BARRENA.eus atarian ekintzaren berri eman izanaren frogak aurkeztu beharko da.

Euskara
2026EDIN0001

- Egindako lana egiaztatzeko edo horren lekuko baliagarria izango den dokumentazio grafikoa edo ikus-entzunezkoa. Justifikazioari honakoak erantsi beharko zaizkio: egitasmo edota ekintzen berri emateko erabili diren publizitate-euskarriak. Halaber, jardueraren inguruan sorturiko edozein eratako dokumentazio grafiko zein idatzizko.
- Ekintzen zabalkunderako erabilitako dokumentazioa ez da ezinbestean paperean aurkeztu beharko, formatu elektronikoa ere aurkeztu ahal izango da.
- Indarrean dagoen erantzukizun zibileko aseguru polizaren eta ordainagiriaren kopia.

Aurkeztutako aurrekontua baino gutxiago justifikatzen bada, edo justifikazio horretatik Udalak ontzat ematen duen kopurua aurkeztutako aurrekontua baino txikiagoa bada, Udalaren dirulaguntza, honek onartutako kopuruaren % 52,27koa izango da, gehienez ere, euskara ekintzetan, eta % 55,94koa haurrei eta familiei zuzendutako aisia hezitzaileko egitasmoan.

Zortzigarrena: Hitzarmen hau sinatzen den unean sartuko da indarrean, eta 2026eko abenduaren 31ra arte iraungo du.

Bederatzigarrena: ELKARTEAK, dirulaguntzaren onuradun den aldetik, honako betebeharrak izango ditu:

- Dirulaguntza hitzarmenean adierazitako helburu zehatzetarako erabili beharko du.
- Hitzarmenean aurreikusitako egitasmoa osotasunean gauzatu beharko du.
- Egitasmoen eta ekintzen zabalkundea Udalarekin batera koordinatu beharko du.
- Ekintzen publizitatea egiteko erabiliko diren euskarrietan Udalaren babesletza edo lankidetzara adierazi beharko du Udalaren logoa jarrita, eta albisteetan Elgoibarko Udalaren babesaren edo/eta lankidetzaren berri eman beharko du, testuan argi adierazita. Udalak ere, berari dagokionean, irizpide bera jarraituko du.
- Dirulaguntza gai diren ekintzei buruzko informazioa bermatu beharko du barrena.eus atarian, BARRENA astekarian, elgoibar.eus atarian, eta udal agendan. Informazioa Udalaren kultura gidan txertatu ahal izateko, ekintza egin aurreko hilabeteko 12a baino lehenago jaso beharko du informazioa Udalak. Hau hala egin izana dirulaguntza zurrizterakoan egiaztatu beharko da.
- Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egitea dirulaguntza jaso duten egitasmo, proiektu edo jarduerak sustatzeko egiten diren kartel, testu eta agiriak edukietan.
- Antolatzen diren jarduerak guztietan kontuan izango dira euskararen lehentasunezko erabilera, gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna, eta inklusioa eta integrazioa.
- Elkarrekin dokumentazioan argi ikusteko moduan adierazi beharko du Elgoibarko Udalak diruz lagundu duela jarduerak hori. Horregatik, Elgoibarko Udalaren logoa agertu beharko da jardueraren publizitatean, eta albisteetan jarduerak Udalaren babesarekin edo/eta lankidetzarekin antolatu dela adierazi beharko da. Udalak ere, berari dagokionean, irizpide bera jarraituko du.
- ELKARTEAK eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du, laguntzaren xedearren fiskalizazio-funtzioak betetze aldera.
- Elkarrekin, haurrei zuzendutako aisia hezitzaileko egitasmoan lan egingo duten begiraleen kontratazioarako Udalarekin adostutako irizpideak jarraituko ditu.
- Era berean, hitzarmen honetan zehaztutako ekintzak burutzeko beste erakunde publiko zein pribaturen baten dirulaguntzak jaso badira, ELKARTEAK horren berri eman beharko dio UDALARI.

Hamargarrena: Hitzarmen honetan jasotako betebeharren bat betetzen ez baldin bada, hitzarmen hau



Euskara
2026EDIN0001

bertain behera geldituko da.

Horretaz gain, ELKARTEARI dirulaguntza osoa edo dirulaguntzaren zati bat kendu ahal izango zaio. Horretara heldu baino lehen, interesatuari entzunaldia egiteko aukera eskainiko zaio, eta hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzultzeko erabakia hartuko da.

Ondoren aipatuko diren kasuak izango dira oinarriak bete ez izanaren arrazoi. Hori dela-eta, dirulaguntza kentzeko edo, premiazko bidez, dirulaguntza itzularazteko arrazoi izango dira:

- Eskeraren datuetan gezurak sartzea.
- Dirulaguntza emateko kontuan izan den edozein baldintza aldatzea.
- Eskatutako dokumentazioa ezarritako epean ez aurkeztea.
- Dirulaguntza eman den xederako ez erabiltzea.
- Oinarri hauetan ezarritako betebeharrak, edo hala badagokio, emakida egintzan ezartzen direnak ez betetzea.
- Beste edozein xedapenen bidez oro har ezarritako betebeharrak guztiak ez betetzea.

Hamaikagarrena: Hitzarmen honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko edo pribatuk xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Nolanahi ere, ez da gainfinantzaketarik izango, eta hala gertatzen bada, dirulaguntza murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.

Hamabigarrena: Elgoibarko Udalaren Euskara Sailak eta Gazteria eta Hezkuntza Sailak izango dute hitzarmenaren betetze mailari dagokion jarraipena egiteko ardura. Besteak beste, honako hauek izango dituzte kontuan, hitzarmenaren jarraipena egin ahal izateko:

- Hitzarmen honetan ezarri diren betebeharrak bete direla egiaztatzea.
- Dirulaguntza eman den xederako erabili dela egiaztatzea.
- Aurkeztu diren agiriak zein egindako gastuak justifikatzeko ordainagiriak benetakoak direla egiaztatzea.

Hamahirugarrena: Hitzarmen honen izaera administratiboa da. Beraz, hitzarmen honen interpretazioa, aldaketa, ondorioak nahiz ebazpenaren ondorioz sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardurapekoak izango dira, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoari jarraikiz.

Hitzarmen honetan berariaz zehaztu ez diren kasuetarako, Elgoibarko Udalaren eta Bere Ardurapeko Autonomiadun Erakundearen Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Nagusia aplikatuko da. Halaber, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra izango da kontuan.

Hamalauugarrena: ELKARTEAK hitzarmen honen bidez zehazten diren dirulaguntzen onuradun den aldetik, UDALAK eskaintzen dion babesaren edo/eta lankidetzaren berri eman beharko du, hitzarmen honen bitartez bideratzen diren ekintzen kasuan. Hori dela eta, ekintza horien euskarri guztietan ELKARTEaren logoaz gain, Udalarena, Gipuzkoako Foru Aldundiarena eta Eusko Jaurlaritzarena agertu beharko dira.

Eta bi alderdiok, ados daudela eta hitzarmenean jasotako guztia onartzen dutela adierazteko, hitzarmena



Euskara
2026EDIN0001

sinatzen dute izenpean jasotako egunean.

Sinatzailea/k	ALKATEA, MAIALEN GURRUTXAGA URANGA ELGOIBARKO IZARRA EUSKALTZALEON TOPAGUNEA ELKARTEKO ORDEZKARIA, AMAIA ARRIZABALAGA OSORO		
Kodea	HI26/0060	Udala	Elgoibar
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/I00/AAAA97RKQ.AfPP		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen baliotasuna egiaztatzeko ondorengo webgunean sar zaitez edo QR irudia irakur ezazu.			